

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure kasuan bezeroen segmentazioren arabera **merkatu-nitxoa** izango da. Gure **xede publikoa haurrak eta pertsona helduak** dira. Beraz, gure bezeroek 20-50 adin tartea izango dute, horiek baitira euren haur eta helduentzat pixoihalak erosiko dituztenak, gehienbat. Horretaz gain, hartzaindegi, enpresa farmazeutiko eta denda ekologikoak ere bezero garrantzitsuak izan daitezke.

Hartzaindegiek diru asko aurreztu dezakete mota honetako pixoihalak erabilita, beraz aliantzak sortu ditzakegu elkarren onurarako.

Gure xede publikoak, berriz, zuznean gure dendan, eta baita internet bidez ere umeentzat, pertsona ezintasuna dutenentzat eta helduentzat erosteko aukera izango du. Izan ere, gero eta gehiago dira istripu baten ondorioz edo gaixotasun baten ondorioz ezintasuna duten helduak.

Enpresa farmazeutikoak eta denda ekologikoak gure bezero garrantzitsuak izan daitezke. Horiek, kantitate handietan saltzen baitituzte mota horietako pixoihalak normalean.



Hartzaindegia



Denda ekologiko bat



Adineko pertsonak

Farmazeutika bat